



Ehunka herritarrek azken agurra eman diote Xabier Manterola eusko gudariari

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/11/2025

Joan den larunbatean zendu zen Manterola, bizi oso bat Euskal Herriaren askapenaren aldeko borrokari eman ondoren.

Joan den azaroaren 1ean hil zen Xabier Manterola eta atzo haren senide eta burkideek azken agurra emateko ekitaldia egin zuten Hendaian(Lapurdi). Seme-alabek ireki zuten omenaldia, eta ondotik, bere bizitzako garai ezberdinetan Manterolaren ondoan izandako hainbat lagunek hartu zuten hitza. Bukaeran, Internazionala eta Eusko Gudariak abestu zituzten.

Herri Taldeetako eta Iparretarrak talde armatuko kide izan zen Manterola. Bere militantzia dela-eta, 1985ean GALEk bonba bat jarri zuen haren autoan, Baionan, baina bizirik atera zen atentatu hartatik. Era berean, Frantziako estatuaren errepresio krudela jasan zuen, izan ere, bi espetxe zigor jaso zituen. Hendaia Biltzeneko kide gisa, Udal Kontseiluko kide izan zen 2020an, hasieran Kotte Ecenarroren gehiengoarekin eta gero oposizioan, bere taldea erretiratu zenean. Bestetik, Uda Leku elkartean, Ipar Euskal Herrian euskarazko aisialdi eskaintza zabaltzen lan egin zuen, eta azken urteetan, pobreziaren aurkako borrokan jardun zuen . Urte asko eman zituen borrokan, eta militantziak ardaztu zuen haren bizia; Hendaiaiko ekitaldi, mobilizazio eta politikako aurpegi saihestezinetakoa baizen.

<https://eh.lahaine.org/ehunka-herritarrek-azken-agurra-eman-diote-xabier>